



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko otsailaren 16an

13 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua (11. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duena. Atzera bidalitako proiektua (13. or.).
- Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (13. or.).
- Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Lan arriskuen prebentzioari buruzko Legearen jarraipenaren gaineko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzaileei buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua (16. or.).
- Tafallako Osasunetxearen ginekologi zerbitzuari buruzko galdera, Francisca Catalán Fabo eta M^a José Pérez de Eulate Urrea Foru Parlamentari andreak egina (16. or.).
- Zaharrentzako egoitza Betelun jartzeko egin den esleipenari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
- Tuterako Reina Sofía ospitaleko itxaron zerrendei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Zolinar proiektatutako "Hiri bioklimatika" delakoari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espeditenteei buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (19. or.).

—Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruzko galdera, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak egin (19. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—1998ko urtarrilean egindako bilerak (21. or.).

—1998ko urtarrilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (21. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko otsailaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1998ko martxoaren 6ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Araubidea Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.24 artikulua indarrez, Nafarroak nekazaritza ganbaren inguruko eraba-

teko eskumena hartu zuen, legeria orokorreko oinarriko printzipioen arabera.

Berriki, abuztuaren 1eko 1321/1997 Errege Dekretuaren bidez, nekazaritza ganbaren arloko zerbitzu eta eginkizunak eskualdatu dira Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eta modu horretan Nafarroak zuen eskumen hori erabat erabiltzeko bidea jarri da.

Arlo horretako zerbitzu, eginkizun eta baliabideak eskualdatu direlarik, bidezko da Nafarroako Nekazaritza Ganbaren araubide juridikoa zehaztea eta, halaber, horiek berritzeko hauteskunde prozesu demokratikoa irekitzeko oinarriak finkatzea.

Nekazaritza ganbaren oinarriko abiapuntu dira abenduaren 24ko 23/1996 Legean bildutako printzipioak, lege horren bidez Estatuak finkatu baitzituen haien araubide juridikoaren oinarriak, eta ondorengo lege-aldaketak (urriaren 15eko 23/1991 eta abenduaren 27ko 37/1994 legeak) eta, halaber, arlo horri buruz Konstituzio Auzitegiak uztailaren 18an emandako 132/1989 Epaia- ren pronuntziamentuak.

Nekazaritza ganbaren egitura berriarekin batera, Nafarroako Nekazaritza Ganbara sortzea erabaki zen, Foru Komunitatean nekazaritza arloko gaietarako aholkularitza emateko entitate korporatibo bakarra izan zedin. Hortaz, lehengo Nekazaritza Ganbara Probintziala ordezkatu du eta haren eskubide eta beharkizunetan subrogatu da. Ganbara berria Zuzenbide Publikoko korporazioa da, nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko bidean jarduteko gaitasuna dituena, egitura eta funtzionamenduaren aldetik printzipio demokratikoetan oinarritua eta administratiboki Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren babesean kokatua. Foru Lege honean, haren nortasun eta eginkizunak, gobernu organoak eta araubide ekonomikoa ezarri dira. Halaber, Nafarroako Gobernuak nekazaritzako sektore sozialaren hauteskundearen deialdia egiteko erabiliko duen prozedura arautzen du. Prozedura horren garbitasun eta gardentasuna berma-

tuta egonen da, erroldari, hauteskunde organo inpartzialen eraketari eta nekazaritza arloko elkarre eta batasunen kandidatura ezberdinei esker.

Bestalde, nekazaritzako lanbide erakundeek nekazaritzako sektorearen ordezkaritza guneetan hartzen ari diren protagonismoa ikusita, beharrezkoa da nekazaritza ganbararen egitura sinplifikatzea, izan ere horri zegozkion eginkizun asko aipatu erakundeek edo bestelako entitateek eskuratu dituzte. Beste hainbat lan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik bertatik egin daitezke, hobeki gainera, Estatuko Administrazioak emandako zerbitzuen hartzaille zuzena izan baita. Horregatik, Nekazaritza Ganbaren Araubide Juridikoen Oinarriei buruzko abenduaren 24ko 23/1986 Legearen 7. artikuluan bildutako printzipioen arabera, tokiko nekazaritza ganbarak desegin dira. Horien ondasunak nola erabiliko diren ondoren arautuko da.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Eraketa.

Nafarroako Nekazaritza Ganbara eratu da, Foru Lege honek, berau garatzeko xedapenek, ganbararen beraren estatutuek eta aplikatu beharreko gainerako arauak arautuko dutena.

2. artikulua. Eragin eremua.

Nafarroan Nekazaritza Ganbara bakarra izanen da, Foru Lege honetan zehazten diren eginkizunak izanen dituena Foru Komunitatearen lurralde osoan.

3. artikulua. Izaera juridikoa.

Nafarroako Nekazaritza Ganbara zuzenbide publikoko korporazioa da, bere eraketari eta antolamenduari dagokienez, bai eta aginte publikoak garatzeko jarduten duenean ere. Nortasun juridiko propioa izanen du eta, bere helburuak lortzeko bidean, jarduteko gaitasuna. Egitura eta funtzionamenduaren aldetik, printzipio demokratikoen menpe egonen da eta bere interes eta baliabideak kudeatzeko autonomia izanen du.

4. artikulua. Zuzenbide Administrazioaren menpekotza.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbara zuzenbide administrazioaren menpe dago, eraketa eta antolamenduaren inguruko orotan eta, zuzenbide publikoko korporazioa den aldetik, ematen dituen erabaki eta egintza administrazioen ingurukoean. Erabaki eta egintza horien aurka helegite arrunta jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan,

aplikatu beharreko administrazio prozeduraren arauari jarraikiz.

Nortasun juridiko administrazioa ez, bestelakoa duten aferak kasuan-kasuan aplikagarri diren arauari jarraikiz ebatziko dira, dagokion organo jurisdikzionalaren esku utzita.

2. Nolanahi ere, Nafarroako Nekazaritza Ganbararako hautesleek Ganbararen jardun administrazioei buruz dituzten kezak aurkeztu ahalko dituzte Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan.

5. artikulua. Administrazioarekiko harreman organikoa.

Nafarroako Nekazaritza Ganbararen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko harremana, organikoki, Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bitartez bideratuko da, horren babespean izanen baita, Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera.

Tutoretza lan horren barruan dago Foru Lege honetan biltzen direnak onartu, fiskalizatu, administrazio errekursoak ebatzi, etenak erabaki eta desegiteko administrazio ahalmenak baliatzea.

6. artikulua. Estatutuak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbararen Estatutuak Foru Lege honetan, berau garatzeko xedapenetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan zehaztutakoari egokituko zaizkio.

2. Nafarroako Nekazaritza Ganbararen estatutuak Korporazioaren osoko bilkurak onetsi behar dituzte, gehiengo absolutuaz, eratu eta hurrengo sei hilabeteren barruan gehienez. Onetsi ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura igorri beharko dira, bi hilabeteko epearen barruan, berretsi ditzan, eraginkortasun juridikoa izan dezaten. Eraginkortasun hori ukatuko da antolamendu juridikoa errespetatzen ez dutenean. Estatutuen testua eta berrespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

3. Estatutuak aldatzeko aurreko zenbakian adierazitako prozedura berari jarraikiko zaio.

4. Nekazaritza Ganbararen Estatutuetan, gutxienez, honako datu hauek agertu beharko dute:

a) Egoitzaren helbidea, Iruñeko udal dermioan egon beharko duena.

b) Legez dagozkion eginkizunak.

c) Garapen xedapenak; hots, gobernu organoaren eraketa eta funtzionamendu arauak, kideak

izendatu eta berritzeko prozedura eta horiei dagozkien eskumenak.

d) Gobernu organoen deialdiak egin eta eratzeko araubidea, eztabaidetarako prozedura eta erabakiak hartzekoa.

e) Araubide ekonomikoa, baliabideen jatorria, horiek administratzeko modua eta ondarea zehaztuz.

f) Proposamenak eta mozioak aurkeztea, erantzukizunak eskatu eta urteko jardueren memoria zein kontuen txostena esijitzea bermatzeko baliabideak.

g) Kideen eskubide eta eginbeharrak.

II. KAPITULUA

Nafarroako Nekazaritza Ganbararen eginkizunak

7. artikulua. Eginkizunak.

Hauek dira Nafarroako Nekazaritza Ganbararen eginkizunak:

a) Nafarroako Administrazio Publikoentzako aholkularitza eta lankidetzako organo gisa aritzea, nekazaritzaren inguruko gaietarako, haiek eskatzen dutenean behar diren ikerlan eta txostenak eginez.

b) Indarra duen legediak eskatzen dituen txosten edo manuak luzatzea.

c) Administrazio publikoen erakunde publiko edo organo kolegiatuetan parte hartzea, haien eraketan horrela aurreikusita badago.

d) Baliabideak eta ondarea administratzea.

e) Nafarroako Gobernuak delegatzen dizkion nekazaritza arloko eginkizun administratiboak bere gain hartzea, delegatzeko Foru Dekretuan ezartzen den bezala. Aipatu Dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Ondorio horietarako, Nafarroako Nekazaritza Ganbara bulego publiko gisa aritu daiteke eta, hortaz, delegazioaren ondotik dagozkion eskumenen inguruko dokumentazioa jaso eta izapidatu ahalko du.

8. artikulua. Mugak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bere eskumeneko jardunean, ez die mugarik jarriko, ez askatasun sindikalari, ez enpresa batasunaren eskubideari.

2. Ez dira Nafarroako Nekazaritza Ganbararen berezko eginkizunak nekazari eta abeltzainen interes ekonomiko, sozial, profesional eta sindika-

len izenean eta horiek defendatzeko asmoz, ordezkari-tza, negoziazio eta erreibindikazioaren ingurukoak, eta ezin izanen du, Toki Araubidearen legediaren arabera, toki entitateei dagozkien jarduerak garatu.

3. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak ezin izanen du inolako jarduera komertzial edo merkataritza-akorik garatu.

III. KAPITULUA

Gobernu organoak

9. artikulua. Organoak.

Nafarroako Nekazaritza Ganbararen gobernu organoak osoko bilkura eta lehendakaria dira.

10. artikulua. Osoko bilkura.

1. Osoko bilkura Ganbararen organo gorena da. Hamazazpi kide izanen ditu, sufragio ireki, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratu beharrekoak, lau urterako, ordezkari-tza proporzionaleko irizpideen arabera hautatuak. Kide guztiak hauteskunde prozesu berean hautatuko dira, Nafarroa osoa hartuko duen hauteskunde barruti bakarrean.

2. Osoko bilkurari dagokio:

a) Nafarroako Nekazaritza Ganbararen estatu-tuak onestea, bai eta estatutuen aldaketak ere.

b) Ganbarako lehendakari eta lehendakariordea hautatu eta berritzea.

c) Aurrekontu eta kontuak onestea.

d) Jardueren urteko memoria onestea.

e) Ondarea administratu eta hori erabiltzea, indarra duen arauteriak ezarritakoari jarraikiz.

f) Langileen plantila onestea.

g) Langileen arau-hauste larri eta oso larriak zehatzea.

h) Entitatearen gaineko organoen kontrola eta fiskalizazioa egitea.

i) Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkion eginkizunak onartzea.

j) Nafarroako Desjabetza Epaitegian eta Desjabetzako Epaitegi Probintzian eta parte hartu behar duen gainerako organo eta erakundeetan izanen dituen ordezkariak hautatzea, horietan parte hartu behar dutenean.

k) Estatutuek eta indarra duten xedapenek esleitzen dizkion gainerako ahalmenak aurrera eramatea.

3. Osoko bilkura eratuko da hauteskunde prozesua amaitu eta hogeita hamar eguneko epearean barruan eta agintaldia lau urtekoa izanen da.

4. Osoko bilkura sei hilabetetik behin bilduko da, gutxienez, bilera arrunta egiteko. Bilera bereziak noiznahi egin ahalko ditu, lehendakariak edo kideen heren batek eskatuz gero.

5. Osoko bilkuraren bileretarako deialdia egiteko zitazioa egin beharko zaie kideei hamar egun baino lehen, gutxienez, eta horrekin batera bilera-eguneko gai-zerrenda bidali behar da. Bilera baliioduna izateko lehenbiziko deialdian kideen erdiek agertu behar dute, artikuluko 2. zenbakiko a), b) eta e) idazatietan zehaztu erabakiak hartzen diren izan ezik, horietarako osoko bilkurako kideen gehiengo absolutua agertzea beharko baita. Kasu guztietan, lehendakariak agertu beharko du edo lehendakariordeak, hark jarduterik ez duenean.

6. Osoko bilkuraren erabakiak agertzen diren kide gehienen botoaz hartuko dira, estatutuaren edo indarra duten xedapenetan bestelako gehiengo izatea eskatzen denean izan ezik.

11. artikulua. Lehendakaria.

1. Ganbarako Osoko Bilkurak hautatuko du lehendakaria, bertako kideen artean, eraketa bilkuran. Kargualdia lau urtekoa izanen da, osoko bilkuraren kargualdiarekin bat, 10. artikuluko 2. zenbakiko b) idazatian xedatutakoa galarazi gabe.

2. Lehendakariari dagokio:

a) Ganbararen legezko ordezkaria izatea eta haren gobernamentuaren eta administrazioaren zuzendaritza bere gain hartzea.

b) Osoko bilkuraren bilerei dagokienez, deialdiak egitea, buru izatea, bertan behera uztea, amaiera ematea eta kalitatezko botoaz baliatzea berdinketak hausteko.

c) Osoko bilkurak hartzen dituen erabakiak bete daitezen begiratzea.

d) Korporazioaren zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea.

e) Aurrekontuen proiektua prestatzea.

f) Gastuak baimentzea, ordainketak agintzea eta kontratuak sinatzea.

g) Administrazio Publikoekin egin beharreko hitzarmenak sinatzea, Osoko bilkuraren baimena izanda.

h) Osoko bilkurari proposatzea Ganbarako lehendakariordea izenda dezan.

i) Estatutuek esleitzen dizkion gainerako esku-menak baliatzea.

3. Nekazaritza Ganbararen estatutuaren zehaztuko dira lehendakaria kargutik kentzeko kasu eta egoerak.

4. Lehendakariordeari dagozkio estatutuaren eta indarra duten xedapenetan zehazten diren ahalmenak eta, halaber, lehendakariak esleitzen dizkionak. Lehendakariordeak lehendakaria ordezkaturiko du, hori kanpoan edo eri dagoenean eta postua bete gabe dagoenean.

12. artikulua. Bateriaezintasunak.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarako organoetako kideek ezin izanen dute:

a) Hautapen edo izendapen libreko kargu publikoetan aritzea, alkate edo zinegotzi gisa izan ezik, beti ere horrekin batera toki entitate batean beste ordezkari kargurik ez badute.

b) Administrazio Publikoen zerbitzuko langile izatea, dela jardunean, dela zerbitzu berezietako egoeran.

13. artikulua. Jardun-etetea eta desegitea.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Nekazaritza Ganbarako gobernu organoen jarduna eten ahalko du, indarra duen antolamendu juridikoa larriki edo birritan edo gehiagotan hausteagatik, hori egitea beharrezkotzat jotzen denean eta, orobat, organoen ohiko funtzionamendua ezinezkoa gertatzen denean.

2. Jarduna etetea erabakian zenbat denborarako den zehaztuko da (hiru hilabetetik behera beti ere) eta bitartean Ganbararen interesak zein organok kudeatuko dituen adieraziko da.

3. Etenaldi hori amaituta, jardun-etena ekarri zuten arrazoiek bere horretan segitzen badute, hilabeteko epearen barruan, Nafarroako Gobernuak Ganbarako gobernu organoak deseginen ditu eta hauteskunde berrien deialdia egiten du.

IV. KAPITULUA **Araubide ekonomikoa**

14. artikulua. Baliabide ekonomikoa.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bere helburuak betetzeko honako baliabide hauek izanen ditu:

a) Bere ondarearen errentak.

b) Ematen zaizkion dohaintzak, legatuak, jaraunspenak, laguntzak eta gainerako baliabideak.

c) Nafarroako Aurrekontu Orokorretan eta beste administrazio publiko batzuetakoetan urtero helburu horretarako ezar daitezkeen ekarpenak.

d) Udalekin hitzartu edo itundurikoari jarraikiz, zerbitzu bereki edo delegatuak emateagatik jasotako errendimenduak.

e) Dagozkion gainerako diru-sarrerak.

2. Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Nekazaritza Ganbararen funtzionamendurako ematen dituen dirulaguntzak bahitezinak dira.

15. artikulua. Langile kontratatuak.

Dagozkion lanak egiteko, Nafarroako Nekazaritza Ganbarak behar dituen langileak kontratatu ahalko ditu, bere aurrekontu baliabideen arabera, lan zuzenbideko araubidean, deusetan galarazi gabe Nafarroako Administrazio Publikoetako langile funtzionarioei aplikatu beharreko bateraezintasun araubidea.

16. artikulua. Berrespenak.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarak egiten dituen ondasun higiezinaren erosketa, besterente, lagapen edo errentamentuetarako, aurrekontu ekitaldi batetik gorako obra, hornidura edo zerbitzu kontratazioak egiteko eta langileen plantila organikoa onesteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren berrespena beharko da, eraginkortasun juridikoa izanen badute.

17. artikulua. Betebehar ekonomikoak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak urte bakoitzaren hiruhilekoaren barruan honakoak egin beharko ditu:

- Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua onestea.
- Aurreko urteko jardueren txostena prestatzea.
- Aurreko urteko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa edo kontuak onestea.

2. Arestiko idazatian aipatu agiriak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura igorri beharko dira, osoko bilkurak onetsi eta hila-beteko epearen barruan, aplikatu beharreko xedapenen arabera, berretsi daitezzen.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, babes administratiboaren eskumena baliatuz, egoki juzkatzen duenean erabaki ahalko du kontu-ikuskapenak egitea, Nafarroako Nekazaritza Ganbarak hartzen dituen fondo publikoak egoki aplikatzen ote diren ikertzearen.

18. artikulua. Onura fiskalak.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarak indarra duen legedian Nafarroako Administrazio Publikoentzat ezarrita dauden onura fiskalak izanen ditu.

V. KAPITULUA **Hauteskunde prozesua**

I. Sekzioa **Hautesle eta hautagaiak**

19. artikulua. Hauteskunde prozedura.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak kapitulu honetan zehazten den hauteskunde prozedurari jarraikiz aukeratuko dira.

20. artikulua. Hautesleak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak aukeratzeko hautesleak izanen dira, Hauteskundeen Araubide Orokorra arautzen duen Legearen arabera botoa emateko eskubidea izanik, honako baldintzaren bat bete eta Foru Lege honen 23. artikuluan aipatzen den hauteskunde erroldan agertzen direnak:

a) Jabe, errenta-hartzaile, partzuer zein Legean aitorturiko bestelako modu gisa, nekazaritza ogibide duten pertsona fisiko adinez nagusiak, zuzenean eta modu pertsonalean nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza lanetan ari badira eta, lan horren ondorioz, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian, nor bere kasa, edo Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliaturik baldin badaude, beren nekazaritza jarduerarengatik.

b) Aurreko idazatian aipatu pertsonen senitar-teko adinez nagusiak, haiekin bigarren mailara bitarteko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak, modu zuzenean eta ezeren aurretik familiaren ustiatzean lan egiten badute. Ahaide horiek Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian, nor bere kasa, edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanak agertu beharko dute, beren nekazaritza jarduerarengatik.

c) Nekazaritzako famili enpresa batean legeko kolaboratzaile diren pertsona fisikoak, baldin eta Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian, nor bere kasa, edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanak baldin badaude, beren nekazaritza jarduerarengatik.

d) Estatutuen araberako helburu bakarra nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako ustiatzean lana duten pertsona juridikoak, egiazki horretan aritzen badira Nafarroako Foru Komunitatearen

lurraldean. Kasu honetan botoa emateko eskubidea legezko ordezkariak erabiliko du.

2. Ez da inolaz ere zilegi izanen sufragio aktiborako eskubidea behin baino gehiagotan erabiltzea hauteskunde prozesu berean.

21. artikulua. Hautagaiak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarako hautagai izanen dira hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak, non ez dagoen Hauteskundearen Araubide Orokorra arautzen duen Legean finkaturiko aukeraezintasunerako kausarik bat ere.

2. Aukeratzeko debekua dakarten kausak bateraezintasunerako kausa ere izanen dira.

22. artikulua. Bateraezintasuna.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideentzako bateraezintasun kausak honako hauek izanen dira:

a) Hautapen edo izendapen libreko kargu publikoetan aritzea, alkate edo zinegotzi gisa izan ezik, beti ere horrekin batera toki entitate batean beste ordezkariak kargurik ez badute.

b) Administrazio Publikoen zerbitzuko langile izatea, dela jardunean, dela zerbitzu berezietako egoeran.

c) Aukeratzeko debekua dakarten kausak.

23. artikulua. Hauteskunde errolda.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Foru Lege honen 20. artikulua-aren arabera hautesle diren pertsona guztien errolda prestatuko du.

2. Errolda lau urtetik behin berritu beharko da, gutxienez, Nafarroako Nekazaritza Ganbarako hauteskunde prozesuarekin bat etorriz.

3. Nafarroako Nekazaritza Ganbararako hauteskundeak egin baino lehen, hautesleen errolda jendaurrean jarri beharko da udalen iragarki-ohoretan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bulegoetan, egoki juzkatzen diren alegazio eta zuzenketak egin ahal izateko. Horrekin batera, alegazioaren arrazoiak azaltzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Hilabeteko epearen barruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ebatziko ditu aurkezturiko alegazio eta zuzenketak eta behin betiko errolda argitara emanen du.

4. Erroldan sartu edo bertatik baztertzeko erabakien aurka errekurtsio arrunta jarri ahalko da

Nafarroako Gobernuan, baina, jarrita ere, ez da etengo hauteskunde prozedura.

II. Sekzioa **Hauteskunde prozedura**

24. artikulua. Hauteskundearen deialdia.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbararako hauteskundearen deialdia Nafarroako Gobernuaren Foru Dekretuaren bidez zehaztuko da, aurrekoen kargualdia amaitu aurreko hirurogei eguneko epearen barruan.

2. Hauteskundeak egin beharko dira aurrekoen kargualdia amaitu ondoren hogeita hamar egun igaro baino lehen.

3. Hauteskundeetarako kanpainak hamabost egun iraunen du, gehienez.

4. Nafarroako Nekazaritza Ganbara berria eratu bitartean aurrekoak segituko du jardunean.

25. artikulua. Hauteskunde administrazioa.

Hauteskunde administrazioaren helburua izanen da hauteskunde prozesuaren gardentasuna eta objetibitatea begiratzea eta berdintasunaren printzipioa benetan aplikatzen dela bermatzea. Ardura hori honakoek hartuko dute:

a) Nafarroako Nekazaritzako Hauteskunde Batzordea.

b) Hauteskunde mahaiak.

26. artikulua. Nekazaritzako Hauteskunde Batzordea.

1. Nekazaritzako Hauteskunde Batzordea, egoitza Iruñean izanen duen organo iraunkorra, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak aukeratu beharreko zazpi kidek osatuko dute. Horietako bat Departamentu horretako zuzendari nagusi izanen da, batzordeburu lanetan; beste hiru Departamentuko funtzionarioak izanen dira eta gainerako hirurak, Nafarroako Foru Komunitatean izen ona lorturiko legegariak.

Nekazaritzako Hauteskunde batzordeko kideen erdiak lau urtetik berrituko dira.

2. Hauexek dira Nafarroako Hauteskunde Batzordearen eginkizunak:

a) Hauteskunde prozesua koordinatzea, behar diren jarraibideak emanez.

b) Indarra duen legedia aplikatu eta betearazten dela begiratzea.

c) Hauteskunde errolden eta hautetsien aldarrikapena egitea.

d) Hauteskunde mahaien arteko interpretazio irizpideak bateratzea, hauteskundeei buruzko arauak aplikatuz, eta hauteskunde mahaien erabakiak atzera botatzea, ofizios edo alderdi interesatuak eskatuta, hauteskundeei buruzko arauen aurka jotzen dutenean.

e) Egiten zaizkion kontsulten inguruko ebazpen lotetsiak ematea.

f) Akten ereduak onestea, honakoetarakoak: hauteskunde mahaien eraketakoak, boto-kontaktakoak, bileratakoak, boto-kontakteta orokorrekoak eta hautetsiak aldarrikatzekoak.

g) Hauteskunde eragiketetan ofizialki parte hartzen duten pertsonen gainean disziplina ahalmena erabiltzea.

h) Hauteskunde prozesuan gertatzen diren arau-hausteak zuzentzea, delitutzat har daitezkeenetan izan ezik, eta Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan zehazturiko isunak jartzea.

i) Orohar, aurreikusitako helburuak bete eta sufragioa egoki garatzeko behar diren eginkizunak burutzea.

3. Nekazaritzako Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka, errekurtsio arrunta jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan, administrazio prozedurari buruzko arauari jarraikiz.

27. artikulua. Hauteskunde mahaiak.

1. Hauteskunde mahaien kopurua Nekazaritzako Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du eta hautesle guztiek botoa emateko aukera izan dezaten saiatuko da.

2. Hauteskunde mahaiak hiru kidek osatuko dituzte, hautagai ez diren hautesleen arteko zozketa bidez aukeratuak. Horietako bat mahaiburuarituko da.

3. Hauteskunde mahai bakoitzean, kandidatura bakoitzetik bi ikuskatzaile aritu ahalko dira.

4. Hauteskunde mahaiei laguntza eta aholkularitza emateko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari atxikitako langileak edo horrek izendaturiko pertsonak arituko dira, hauteskunde prozesua egoki garatzen dela bermatzeko behar diren lanak eginen dituztenak.

28. artikulua. Hauteskunde barrutia.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak aukeratzeko hauteskundeen barrutia Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoari dagokiona izanen da.

29. artikulua. Kandidaturak.

1. Hauteskunde prozesua hautagai zerrenda itxien bidez burutuko da. Kandidatura bakoitzean hamazazpi hautagai eta bi ordezkari sartu beharko dira.

2. Honakoek izanen dute hautagai zerrendak aurkezteko aukera:

a) Nekazaritzako lanbide erakundeak, nekazaritzako lanbideen erakundeek lege osaturiko federazioak edo izaera hori duten bi entitatek edo gehiagok aurkezturiko koalizioak. Federazio edo koalizioek batasun horren idazpena egin beharko dute Nekazaritzako Hauteskunde Batzordean, erregelamenduz ezarriko diren modu eta baldintzetan.

b) Hautagaien batasun independenteak, beti ere hauteskunde errolda osatzen dutenen % hamarren sinadura egiaztatuen abala baldin badute, gutxienez, eta inguruabar hori Nafarroako Nekazaritzako Hauteskunde Batzordean egiaztatzen baldin badute.

3. Kandidaturetan agertzen diren guztiek hautagai izateko baldintzak bete beharko dituzte, Foru Lege honen 21. artikuluan araberak.

4. Kandidaturak Nekazaritzako Hauteskunde Batzordean aurkeztu beharko dira. Agiri hori kandidaturako ordezkariak sinatu beharko du eta, gutxienez, bertan azaldu beharko dira nekazaritzako lanbide erakundearen, federazioaren, koalizioaren edo batasunaren izena eta osatzen duten sustatzaileen izenak. Horrekin batera kandidatura osatzen duten guztien onespina, ordezkariaren barne, aurkeztu beharko da, hautagai izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak eta artikuluan honetako 2. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzekoak.

5. Ez da zilegi izanen nekazaritzako lanbide erakundeek, federazioek, koalizioek edo batasunek kandidatura bat baino gehiago aurkeztea. Lanbide erakundeek, federazioek edo erakundeek koalizioek ezin izanen dute beren izenpeko kandidaturarik aurkeztu, baldin eta hura osatzen duten federazio edo koalizio baten beste hautagai batzuk beste zerrendaren batean agertzen badira.

30. artikulua. Zuzenbide-arau osagarriak.

Kapitulu honetan zehaztu gabe gelditu diren hauteskunde prozesuaren inguruko guztietan, zehazki, boto eskubideaz, postazko botoaz, sufragioen boto-kontaktetaz, emaitzen aldarrikapenaz eta postuak emateaz sortzen direnetan eta, orohar, hauteskunde prozesuan zuzenean nahiz

zeharka eragina duten afera guztietan, modu osagarrian, Hauteskundeen Araubide Orokorrean zehazturiko xedapenak aplikatuko dira.

31. artikulua. Hauteskundeetako gastuak.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarako hauteskundeen deialdia egiteko Foru Dekretuan ezarriko dira hauteskundeetako gastuen kontzeptua, gehieneko diru-muga, kontrolerako baliabideak eta finantzazioaren ezaugarriak.

Edozein modutan ere, hauteskundeetako gastutzat hartuko dira deialdia egiten denetik hauteskunde egunera bitartekoak, ez besterik.

32. artikulua. Erakunde adierazgarrienak.

Administrazio publikoetan edo, aurreikusita dagoen kasuetan, beste entitate eta erakunde juridikoetan erakundeen ordezkaritza zehaztearen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde adierazgarrienak izanen dira Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak aukeratzeko hauteskundeetan baliozko botoen ehuneko hamaibost, gutxienez, lortzen dutenak.

Xedapen gehigarriak

Lehena. 1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bere gain hartuko ditu egungo Nafarroako Nekazaritza Ganbara Probintzialaren eskubide eta beharkizun guztiak.

2. 1997ko irailaren 1ean Nafarroako Nekazaritza Ganbara Probintzialeko langile finko direnak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartuko dira, bere zerbitzuko langile gisa, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraikiz, beti ere Ganbarak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak sinatu beharreko Hitzarmenean espreski hala zehazten bada.

Hitzarmen horretan, gainera, ezarriko da Ganbara Probintzialaren ondare diren ondasun eta eskubideak Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarera pasatu beharra eta Ganbararen adierazpena, hitz emateko etorkizunean bere zerbitzuko langilerik kontratatuko ez duela eta ondarerik eskuratuko ez duela.

Hitzarmen horretan bilduko da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren konpromisoa, Nafarroako Nekazaritza Ganbaren osoko bilkurak egiteko toki bat uzteko eta Ganbarari aholkularitza juridiko eta administratiboa emateko, Departamentuari atxikitako langileen bitartez.

Bigarrena. Nafarroako Nekazaritzako toki ganbarak desegin dira. Nafarroako Gobernuak

behar diren neurriak hartuko ditu ganbara horien likidazioa egiteko.

Hirugarrena. Nekazaritzako toki ganbara horien ondare diren ondasunak Nafarroako Foru Komunitatearen Ondarera igaroko dira. Ondasun horiek, kudeaketaren ondorioetarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari atxiki zaizkio, zeinek bermatuko baitu nekazaritza arloko interes orokorreko helburu eta zerbitzuetarako erabiliko direla, batez ere ganbara horietako udalerrien eta bertako nekazari taldeen onerako.

Laugarrena. Foru Lege honetan zehazturikoaren ondorioz egin beharreko nekazaritza ganbaren baliabideen subrogazio eta atxikipenak Ondareen Eskualdeketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsiak izanen dira. Bestalde, subrogazioa eginagatik ere, errentamendu kontratuak ez dira bertan behera utziko, ez eta horietako errentak igoko ere, eta ukituriko pertsonen eskubide ekonomikoak errespetatuko dira.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege honek indarra hartzen duen egunean dauden nekazaritza ganbaren gobernu organoen egoera aldi batez arautzeko, lanbide eta nekazaritzako erakundeen iritzia entzunda, Legeak indarra hartu eta Nafarroako Nekazaritza Ganbara ofizialki eratu bitartean, alegia. Epe horretan nekazaritza ganbarek ezin izanen dute ondare aldaketarik egin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldekoak izan ezik.

Bigarrena. Nafarroako Nekazaritza Ganbararako lehenbiziko hauteskundeen deialdia Nafarroako Gobernuak eginen du, Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo sei hilabeteko epearen barruan.

Hirugarrena. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bere Estatutuak berrikusi eta aldatu beharko ditu Foru Lege honetan xedatutakoari egokitzeko, osoko bilkura eratu eta sei hilabeteko epearen barruan, indarra hartzen duenetik hasita.

Laugarrena. Landa Errentamenduen Arbitraje Batzordeko kideen proposamena eta izendapena Landa Errentamenduei buruzko abenduaren 31ko 83/1980 Legean xedatutakoari jarraikiz eginen dira, Nafarroako Nekazaritza Ganbaren gobernu organoak eratzen direnean. Ganbarak Nafarroako Desjabetza Epaitegietan eta Nahitaezko Desjabetzako Epaitegi Probintziale-

an izanen den ordezkaria ere orduantxe hautatuko da.

Xedapen derogatzailea

Foru Lege honek indarra hartzearekin batera, indarrik gabe geldituko dira haren aurka jotzen duten maila bereko edo baxuagoko gainerako xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko otsailaren 9an hartutako Erabakiaren bidez, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramailen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1998ko martxoaren 6ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Azaroaren 5eko 40/1997 Legearen bidez, Naturguneak eta Basa Flora eta Fauna Zaintzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legeko zenbait artikulua aldatu ziren.

Eskudun Administrazioek ehizaldiak diferenteki tratatzen dituztela eta salbuespenak Lege horretako debekuak indargabetzeko erabiltzen direla ikusirik gertatu da aldaketa hori.

Gainera, espezie batzuk ugaltu eta zabaldu direla ohartu da. Horrek egin du Europako Bata-suneko estatuetan espezie haiendako ezarritako debekualdiak homogenoek izan ez izatea, ehiza denbora gehiagoz baimentzen delarik.

Egoera hori dela eta, komenigarria zen, ohiko zen tokietan eta erabat kontrolaturiko egoeretan, arrisku baldintzak eta denbora eta toki inguruabarrak kontuan harturik, baimen ahal zedila, modu bereizgarrian, hegazti batzuk, gutxika, zuhurki harrapatu, eduki edo ustiatzea, espezieen iraupe-na bermatzeko behar diren mugak muga.

Basa Fauna eta haren Habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak, orain aldatu diren 4/1989ko zenbait xedapenek oinarrizko legeria osatzen dutela kontuan hartuz, antzeko aginduak bildu zituen.

Estatuko arauteriaren aldaketak, berriki egin denak, oinarrizko arauterien izaera duten xedapenak ukitzen ditu eta, hortaz, Foru Legea eduki berrietara egokitu behar da.

Hori horrela, bidezko da basa faunari buruzko jarduketan debeku orokorrak betetzeko salbuespenen artean beste bat jartzea, ehiza espezie batzuk, hegazti migratzaile zenbait, kasu, kumeak izaten edo habiak egiten dituzten lekuetara itzultzean harrapatzeko baimena ematea ahalbidetzeko.

Hori dena, guztiz kontrolaturiko egoeretan, metodo bereizgarriak ezarriz eta ehiza espezie horien ale gutxi ukituz.

Gainera, izan litezkeen baimenek zehaztu egin beharko dute zer espezie harrapa daitezkeen eta horiek Nafarroan zer egoeratan dauden aleei dagokienez; baimentzen diren baliabide eta metodoak eta horiek erabiltzeko zioak; Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer kontrol sistema ezarriko dituen; jarduketaren bidez zer helburu lortu nahi diren; nolako arriskua eragin dakioken basa faunari eta zenbat ale harrapa daitezkeen gehienez ere.

Horrela, foru arauteria Estatuko oinarrizko arauteria egokitzeko eginbeharra betetzeaz gain, bermatuko da onarturiko salbuespen berriek ez dutela arriskuan jartzen basa faunen espezieen iraupena eta ez dituztela ukitzen horiek darabiltzaten eta beren ziklo biologikoetako edozein etapatan garatzeko behar dituzten habitatak.

1. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 9. artikuluko 1. idaztiari beste idazketa bat ematen zaio eta beste letra bat, e), gaineratzen. Honelaxe:

“1. Beste konponbide hoberik ez badago eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak alde aurreko baimena ematen badu, 8. artikuluko debekuak indarrrik gabe geratuko dira, honako inguruabarretako bat biltzen denean:

(...)

e) Erabat kontrolaturiko egoeretan eta ohiko metodo bereizgarrien bidez, ehiza espezieen ale batzuk zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea ahalbidetzeko, espezieen iraupena bermatzeko behar diren mugak muga.”

2. artikulua. 9. artikuluari beste idazti bat, 3, gaineratzen zaio. Honelaxe:

“3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, berak erabakitzen dituen baimenak jakinaraziko dizkio Ingurugiro Ministerioari, horrek, artikuluko honetako 2. idaztarian aurreikusirikoaren arabera, ondoren Europako Erkidegoetako Batzordeari jakinaraz diezaion.”

3. artikulua. 39. artikuluari beste idazti bat, 4, gaineratzen zaio. Honelaxe:

“4. Beste konponbide hoberik ez badago, 11. artikuluko 2. idaztiko betebeharrak betez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak artikuluko honetako 1. idaztarian kumeak izaten dituzteneko lekuetara itzultzen ari diren katalogoz kanpoko hegazti migratzaileei buruz ezarritako debekua indarrrik gabe uzten ahal du, ohiko tokietan, erabat kontrolaturiko egoeretan eta modu bereizgarrian, ehiza espezieen ale batzuk, gutxika, zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea ahalbidetzeko, espezieen iraupena bermatzeko behar diren mugak muga.”

Azken xedapenak

Lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duena

ATZERA BIDALITAKO PROIEKTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Foru Diputazioak, 1997ko otsailaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua atzera bidali du, Biltzarreko Erregelamenduko 147 artikuluan ezarritakoaren babesean. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege Proiektua atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106 artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari emenda-

kinak aurkezteko epea **1998ko martxoaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106 artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektuari emendakinak aur-

kezteko epea **1998ko martxoaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Lan arriskuen prebentzioari buruzko Legearen jarraipenaren gaineko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak lan arriskuen prebentzioari buruzko Legearen jarraipenaren gaineko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997. urtea bukatzearekin, Nafarroan beste inon baino handiagoa da heriotzak eragiten dituen lan-ezbeharren kopurua.

1998. urteak ezin izan du okerrago hasi, hiru hildako eragin dituzten lan-ezbeharrek izan baiti-

ra. Jadanik, argi dago ez dela nahikoa langileen eta enpresarioen zorrotasuna eskatzea, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria den Bultó jaunak azpimarratu zuen moduan.

Aurreko abenduan, aurrekontuei buruzko eztabaidan, Nueva Izquierda alderdian esan genuen premiazkoa zela aurrekontuko diru-hornidura garrantzitsu bat; hain zuzen ere, dirulaguntza emateko enpresa txikiei, beren produkzio eta lan sistemak Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea moldatzeko eta horretarako beharrezkoak diren aldaketak egin ditzaten.

Hori guztia dela-eta, honakoa jakin nahi da:

Zein neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko enpresei betearazteko Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eta zein jarduera hasteko asmoa du, agente sozialen partehartzearekin, Foru Komunitateko lan-ezbeharren kopurua europako eskualde aurretuekin bat etor dadin?

Iruñean, 1998ko otsailaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzaileei buruzko galdera

AHOZKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzaileei buruz egindako galdera ahoz erantzuteko galdera bihurtzea erabaki zuen. Galdera 1997ko abenduaren 29ko

88 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Tafallako Osasunetxearen ginekologi zerbitzuari buruzko galdera

FRANCISCA CATALAN FABO ETA M^a JOSE PEREZ DE EULATE URREA FORU PARLAMENTARI ANDREEK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Francisca Catalán Fabo eta M^a José Pérez de Eulate Urrea Foru Parlamentari andreak Tafallako Osasunetxearen ginekologi zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

horiek emakumearen arretarako zerbitzua ezartzearekin konponduko zirela pentsatu zuten, baina, gaur salatzen dutenez, ez da hala izan, eta aipaturiko itxaron zerrenda are luzeagoa omen da. Emakume horiek esaten dutenez, gaur egun zita 1999ko urtarrilerako ematen da; hau da, urtebete baino gehiagokoa da itxaron zerrenda.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Zerbitzu horrek patologia ginekologiko guztiei erantzuten die, baita osasun-kontrola beharrezkoa duten egoera ez patologikoei ere: haurdunaldia, erditu ostekoak, kontrazepzioa, menopausia...

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Emakumearen arretarako Tafallako zentroa Nafarroarako zentro pilotu gisa eratu zen, baina eredu txarra izango da jarraitzeko, edozein jarduketan baina lehenago itxaron zerrendaren problema hori konpontzen ez baldin bada.

GALDERAREN EDUKIA

Francisca Catalán Fabo eta M^a José Pérez de Eulate Urrea, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariet, honako galdera hau egiten dute, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, idatziz erantzun dakien:

Hori guztia dela-eta, honako galdera hauek egiten dira:

Tafalla, Artaxona, Zarrakaztelu, Erriberri eta Azkoiengo oinarritzko barrutietako erabiltzaileek hau da, 40.000 biztanle inguruko populazio batek Tafallako Osasun Zentroan hartzen dute laguntza mediko espezializatua. Populazio horretatik % 50 inguru emakumezkoak dira.

1.- Zein da zerbitzu horretako benetako itxaron zerrenda azterketa arrunt baterako?

2.- Zein da zerbitzu horretako benetako itxaron zerrenda lehentasunezko kontsulta baterako?

3.- Zenbat denbora pasa ohi da kontsulta arrunt edo lehentasunezko bat eskatzen denetik kontsulta hori eskatu duen emakumeari zerbitzua ematen zaion arte?

Arreta ginekologikoa osasun-zentroan eskaintzen da, oraintsu ezarri den emakumearen arretarako zerbitzuan (ginekologia-zerbitzu ohia).

4.- Zer neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, epe labur eta ertainera, problema hori konpontzeko?

Zerbitzu horren erabiltzaileek problemak salatzeko zituzten itxaron zerrenda luzea zela-eta, eta

Foru Parlamentariak: Francisca Catalán Fabo eta M^a José Pérez de Eulate Urrea

Zaharrentzako egoitza Betelun jartzeko egin den esleipenari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak zaharrentzako egoitza Betelun jartzeko egin den esleipenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal, Askotariko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, honako galdera hau egiten du, Biltzarreko Erregelamenduak ezarrikoaren babesean, idatziz erantzun dakion:

Berriki, Gizarte Ongizateko Departamentuak Beteluko herriari esleitu dio zaharren egoitza, hainbat udalek eduki nahi zutena.

Prentsaren bidez esleipenari buruzko iritzi ezberdinen berri izan dugu, eta, beranduago,

328/97 eta 391/97 Foru Aginduak ezagutu ahal izan ditugu.

Horri buruz, Parlamentari honek honako puntu hauek jakin nahi izango lituzke:

- Zaharren egoitza eduki nahi izan zutenek aurkezturiko proiektuak. Aurkezpen-datak eta zeintzuk.

- 328/97 Foru Aginduaren arabera osaturiko Batzorde Aholkuemaileak proiektu horiei buruz eginiko balorazioa.

- Proiektuen oinarrian zeuden enpresak: kapital soziala, helbidea eta abar.

- Gainerako proiektuen gainera gainetik Beteluren aldeko aukera egitea osoki justifikatzea. Alderdi berezileak eta besteen gainera aukera hori egiteko erabakigarri izan direnak.

Gainera, Beteluren aldeko esleipen horren espediente osoa bidal diezadatelara eskatzen dut, aurkezturiko eta Batzorde Aholkuemaileak esku artean izandako dokumentazio guztiarekin.

Iruñean, 1998ko otsailaren 4an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Tuterako Reina Sofía ospitaleko itxaron zerrendei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Reina Sofía ospitaleko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"-ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Gero eta kexu gehiago aditzen ari dira Tuterako Reina Sofía Ospitaleko espezialitate jakin batzuek dituzten itxaron zerrendei dagokienez, eta, dirudienez, are luzeago bilakatzen ari dira.

Zehazki, horietan bakarrik gertatzen ez bada ere, publikoki salatu da, inguruetakomunikabi-deetan, eta zerbitzuen erabiltzaileek berretsi egin dute, hala traumatologian nola ginekologian (azken kasu horretan, urteroko azterketei dagokienez) izugarritzko atzerapenarekin ari direla lanean: urtebete baino haundiagoa, azterketen kasuan.

Hori guztia dela-eta, honako hau jakin nahi da:

1.- Zein diren azterketa ginekologikoen kasuan dagoen izugarritzko atzerapen horren zergatiak, eta zer neurri hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hori ekiditeko.

2.- Zer arazo dagoen Traumatologiari dagokionez, lau hilabetekoa baino luzeagoa den itxaron zerrenda bat egoteko salaketa publikoaren arabera, eta zer neurri hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hori zuzentzeko, itxaron zerrenda hori egiaztatzen baldin bada.

3.- Zein zen Tuterako Reina Sofia Ospitalean urtarrilaren 31n zegoen itxaron zerrenda, espezialitate bakoitzean.

4.- Zein egun-kopurutik aurrera kontsideratzen duen Nafarroako Administrazioak itxaron zerrenda dagoela.

5.- Tuterako aipaturiko zentroko itxaron zerrendei dagokionez, egoera nolakoa dela jotzen duen:

- Normalizatu.
- Hobetu daiteke.
- Hobetu behar da.

Erantzunaren arabera, zer egiten ari den Foru Gobernua hori lortzeko.

Iruñean, 1998ko otsailaren 5ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Zolinan proiektatutako “Hiri bioklimatiko” delakoari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zolinan proiektatutako “Hiri bioklimatiko” delakoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko “Nueva Izquierda”-ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Zolinako putzurako duen Hiri Bioklimatiko baten proiektua sustatzeko ideia eta interesaren berri izan dugu oraintsu.

Proiektu orokor mota hau, oraingoa hautaturiko kokapenaren aferan alde batera utzirik, “proiektu berdeak” deiturikoetakoa da, alegia,

Europako Batasuna laguntza garrantzitsuak ematen ari zaien horietakoa.

Gaurdaino Kataluniak bakarrik lortu du arlo honetan sartzea, hainbat proiektu pilotuarekin. Tenerifen ere badago esperientzia bat: bioklimatizazioaren arloan jarduketa pilotu bat garatu nahi da, 25 etxebizitza bioklimatikorekin, horietako bakoitza arkitekto ezberdin baten proiektuari jarraituz eraikirik. Eragiketa Irlako Kabildoak babesten du, eta aurreikusitako gutxi gora-beherako kostua 18 milioi pezetakoa izango da familiarreko etxebizitza bakoitzeko.

Hori guztia dela-eta, honako hau jakin nahi da:

1.- Zein den 811 familibakarreko etxebizitzaren Hiri Bioklimatikoaren proiektuarekin Nafarroako Gobernuak erdietsi nahi duen helburua.

2.- Esperientzia pilotu gisa, jarduketaren tamaina gehiegizkoa izan litekeela ez al duen pentsatzen Nafarroako Gobernuak. Zeintzuk diren horri buruz dituen datuak.

3.- Europako Komunitatearen zer laguntza lor litekeela aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak, proiektu-mota honentzat egun dauden laguntza-programetan oinarrituz. Horietako azken

“paketerako” 140 milioi Ecu-ko dirulaguntzak aitor-tu dira.

4.- Zer dela-eta erabaki duen Nafarroako Gobernuak esperientzia bioklimatiko hau Zolinako

putzuan kokatzea, eta ea aurreikuspen hori behin betikotzat har daitekeen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen Bozeramailea den Patxi Zabaleta Zabaletak, Ganbararen Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoen arabera, Industri, Lan, Merkataritza eta

Turismo Kontseilariari idatziz erantzuteko ondoko galdera hauek zuzentzen dizkio.

1. Zenbat dira eta zein egoeratan aurkitzen dira haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei?

2. Zeintzu dira administrazio-baimenak emateko aukerak?

3. Zein baldintzatan ematen dira? Berrikusten al dira?

4. Zein irizpide erabiltzen da, irizpiderik baldin bada, ekimen honen inguruan edota sor daitekeen beste bakarren baten inguruan hainbat lurraldeari betoa jartzeari dagokionez?

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruzko galdera

XOTERO ETXANDI JUANIKOTENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen kidea den Xotero Etxandi Juanikotena, Ganbara-

ren Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoen arabera, Herrilan eta Azpiegitura Kontseilariari ondoko galdera hauek zuzentzen dizkio idatziz erantzun ditzan.

Belateko tunelak ireki zirenetik istripu ugari izan da errepide zati horretan. Tunel berri hauek sarritan erabiltzen dituen hainbat biztanle nafarrek kexa aunitz jakinarazi digute azken bolada honetan. Nafar asko dira bidezati hau deserosoa dela adierazten dutenak.

Guzti horrengatik, hurrengo galdera hauek egiten dizkizu sinatzaileak:

1. Zeintzu dira Nafarroako Gobernuaren ustez tunelak ireki zirenetik gertatu diren istripuen egiazko arrazoiak? Egin al da ikerketa teknikorik?

2. Zeintzu dira zonaldeko udalek Departamentu horretara bideratu dituzten eskaerak afera honetaz?

3. Zer iritzi du Gobernuak eskaera horien aurrean?

4. Bidezati honetan sortu diren arazoak proiektuak sortuak al dira?

5. Zer asmo du Herrilan eta Azpiegitura Departamentuak arazo tekniko hauek gainditzeko?

6. Azkenik, noiz paratuko dira hor dauden seinale guztiak euskaraz?

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Foru Parlamentarioa: Xotero Etxandi Juanikotena

I Saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko urtarrilean egindako bilerak**MAHAIA**

12, 15, 20 eta 26an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

14 eta 27an.

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

15ean:

– Agintari militarrek desertzio delitua leporatzen dieten Nafarroako intsumitu batzuek bizitzen ari diren egoera aztertu eta, hala badagokio, ekinbideak erabakitzea.

– Hainbat GKEren agerraldia, Mexikoko Chia-pasen gaur egun bizitzen ari diren egoeraren berri eman dezaten. Hala badagokio, egoki iritzitako ekinbide edo erabakiak onetsiko dira.

1998ko urtarrilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

2a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Alesbeseko Escudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko erabakitako soluzioari buruz José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera aireko hari elektrikoen ingurugiro-eraginak zuzentzeari buruz José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera euskarazko irratientzat erreserba bat egitea eragozten edo debekatzen duten legeei buruz Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Onda Cero eta Radio Top irratiei frekuentziak esleitzeari buruz Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Tafalla Ostatura eta hantxe dagoen gasolindegira iritsi ahal izateko moduari buruz Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Nafarroako Gobernuaren eta Volkswagen multinazionalaren artean harturiko konpromisoari buruz Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera "Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak" kontusailaren aurrekontu-exekuzioari buruz Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera NMEZi eta mahastiak landatzeko eskubi-deak dituzten nekazarien datuei buruz Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Iratxeko Monastegiari buruz Begoña Erraz-

ti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera bidaia eta dietetarako sindikatuei zuzenduriko dirulaguntzari loturiko aurrekontu-kontusailari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, hegazti-faunarentzat arriskutsuak diren linea elektrikoak ikuskatzeko kontratazioaren esleipen-hartzaileak ekarritako dokumentazioari buruz.

7a:

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, lurralde-ordutegia hedatzeko RTVE eta Nafarroako Gobernuaren artean lankidetzat-hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia, Nafarroan etxebizitzaren prezioek izan duten bilakaeraren berri eman dezan.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Artaxonako udal-dermioan hudo bidez eginiko untxi-ehiza baimentzerakoan oinarri izan zen Ingurugiro Departamentuko teknikarien txostenari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Getzeko (Galar Zendea) gatzagak leheneratzeko proiektuari buruz.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia, Zolinako putzutik hurbil hiri bioklimatikoaren proiektuaren berri eman dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta harekin batera 5296/1997 Foru Agindua, abenduaren 22koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak emana, indarrean dagoen aurrekontuko sailen arteko kreditu transferentzia baimentzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta harekin batera 1327/1997 Ebazpena, abenduaren 22koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Zuzendari Nagusiak emana, aurrekontuko sailen arteko kreditu transferentzia baimentzen duena.

– Andosillako Udaleko idazkia eta harekin batera Nafarroako Gobernu eta Udal honen arte-

ko hitzarmena eskatzen duen Erabakia, Udal honen etorkizun ekonomikoa bermatzeko.

8a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta harekin batera José Miguel Nuin

Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, 97-1-1ean Toki Administrazioarentzako lanean ari den langileri kontratatuari buruzkoa.

– Axel Baumgart jaunaren idazkia, informazioa gehitzen duena Beteluko eskola publikoko tratatu txarrei buruz.

– Tuterako Udaleko idazkia eta harekin batera Udal horrek 97-12-29ko osoko bilkuran onetsi zuen mozioa Cardenal eta Fungairiño jaunen kargu-uztea eskatzen duena.

– Tuterako Udaleko idazkia eta harekin batera Udal horrek 97-12-29ko osoko bilkuran onetsi zuen mozioa Garapenerako Elkarlanari buruzko legea izango denaren aldaketa eskatzen duena.

– Nafarroako Saharako Delegazioaren idazkia. Hauxe jakinarazten du: badela aukera kanpamentuara beste bidaia bat antolatze hurrengo urtarrilaren 28an eta otsailaren 1ean.

– Carlos Cristobal García Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: dokumentazio guztia bere Parlamentuko bulegora bidal diezaiotela.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak eginiko galdera, minosbaliotasun psikikoa dutenei laguntza emateko dirulaguntza jasotzen duten lanerako zentroak dituzten baliabidei buruzkoa.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Herrilan Departamenduak Nafarroan 8 irrati emisore berri jartzeko eginiko baldintzen pleguari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, 1996 eta 1997an, Servicio Navarro de Salud-Osasunbidean, denboraldirako kontratuen kopuruari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: 133, 140, 141 espedienteak dituzten galderak ezeztatuak izan daitezela.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa eskatzen zuen eskaera, 1995ko 29. zenbakia duen espedientearen dagoena, ezeztatua izan dadila.

9a:

– Iruña-KEM/MOC talde antimilitaristaren idazkia, Ignacio Ardanaz Ruíz intsumisoari buruzko informazioa ematen duena.

12a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin batera 405/1907 Foru Agindua, abenduaren 29koa, Gizarte Ongizate Kirol eta Gazteri Departamentuko Kontseilariak emana, “Inbertsioen azterlanak eta horien planifikazioa” izeneko 10. programako kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen galdera ondokoari buruz: “CEIMSA Electromedicina, S.L.” enpresarekin kontrataturiko oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko hauraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren egoera.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Osasun Kontseilariaren agerraldia oxigenoterapia zerbitzuaren kontratazioaren berri emateko

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen zaio Gobernuari: Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikuloa aldatzeko prozedurari ekin diezaiola.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Giza Eskubideen Batzordearen deialdia intsumisoen gaiari buruz hitz egin dezaten.

– Askotariko Taldea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Askotariko Taldearen bulegoa isolatu eta ixtea.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen galdera, Zizur Nagusiko bigarren hezkuntzako instituko egoerari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia eta horren bidez jabeldura, Gobernuak hartu behar dituen neurriei buruz, hazkunde ekonomikoa lanpostu finkoen areagotze eta langabeziaren gutxitze bihur dadin.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, RTVEko zentroak programazio ordu gehiago emateari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: ordenagailua eta imprimagailua Askotariko Taldearen bulegoan erabiltzeko.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia, Nafarroako Gobernuak Cubari dirulaguntza ematearen onespenerari buruzko Parlamentuaren erabakia jaso duela berri emanez.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen galdera, errezetak euskaraz eta gazteleraz emateko inizatibari buruzkoa.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko Kontseilariaren agerraldia Burlatako Emakumeentzako Harrera Etxearen berri eman dezan.

13a:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen emendakinak Foru Lege proiektuari, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenari.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen emendakina Foru Lege Proiektu osoarekiko, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenarekiko.

– Juan Cruz Alli Foru Parlamentari jaunaren galdera, ekialdeko ingurubideko zenbait zatitako ezbehar kopurua txikiagotzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta harekin batera 479/1997 Ebazpena, abenduaren 19koa, Herrilan, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak emana, kredituen transferentziegatik aurrekontuaren aldaketak baimentzen dituena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta harekin batera 1357/1997 Ebazpena, abenduaren 19koa, Herrilan, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak emana, kredituen transferentziegatik aurrekontuaren aldaketak baimentzen dituena.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea eta “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Giza Eskubideen Batzordea bil dadila, desertzioz akusatua izan diren zenbait intsumiso nafarren egoeraz hitz egiteko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” eta Askotariko Parlamentari Taldeen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Giza Eskubideen Batzordea bil dadila, zenbait gobernuz kanpoko erakunde ager daitezen.

– Iñaki Ordoñez Etxeberria jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Giza Eskubideen Batzordean agertzea, Chiapasen (Mexiko) izan diren gertakari larrien berri emateko.

– “Bakea Sahararako” elkartaldekoak diren zenbait Foru Parlamentarien idazkia. Hauxe eskatzen dute: Parlamentari Talde bakoitzeko ordezkari bana joateko baimena, Tindoufen Saharako errefuxiatuen kanpamenduak bisitatzeko antolatutako behar den bidaiean.

– Rafa Díez Usabiagaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Giza Eskubideen Batzordean ager daitezela, azaroaren 27tik 30era Donostian itxialdia egin zuten pertsonak.

– Aibarko Udaleko idazkia, bat egiten duena Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran, bat egiten duena mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko onetsitako adierazpen instituzionalarekin.

– Japoniako embaxadore jaunaren idazkia, aldaketa klimatikoari buruzko Ebazpena jaso duela jakinaraziz.

14a:

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Nafarroako gasolindegietako errekin-horniketaren bai ikuskapen eta bai neurketen kontrolari buruzkoa.

– Donamariako Udaleko idazkia eta horrekin batera Erabakia, Saharako erreferendum libre eta garbiaren aldekoa.

– Fermín Ciaurriz Gómez Foru Parlamentari jauna eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari anderea, Askotariko Taldekoak eginiko emendakina Foru Lege Proiektu osoarekiko, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenarekiko.

– Fermín Ciaurriz Gómez Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Herrilan eta Azpiegitura Batzordea bil dadila Kontseilaria ager dadin.

– ELA sindikatuaren idazkia eta honekin batera txostena non bere iritzia agertzen baituen Tributuaren Erreforma Aztertze Batzorde Berezia onetsitako lan plangintzari buruz.

– Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunaren galdera, lehen Infanta Elena Zentroa kudetzen zuen GESNA, SA enpresari buruzkoa.

– Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Foru Parlamentari izateari uko egiten diola agertzen duena.

– Florencio Aoiz Monreal Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Foru Parlamentari izateari uko egiten diola agertzen duena.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia eta horrekin batera 1995ean Nafarroako Parlamenturako eginiko hauteskundeetako zerrendetan hurrengoak direnen uko egiteak.

– Pedro María Romeo Lizarraga jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: beharrezkoak direnak egin daitezela Foru Parlamentari kargua hartu ahal izan dezan.

– Shanti Kiroga Aztiz jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: beharrezkoak direnak egin daitezela Foru Parlamentari kargua hartu ahal izan dezan.

– Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa Madrilgo CONVITECMA enpresak eginiko txosteari buruz.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak eginiko galdera, Estatu Espainiarretik kanpo dauden nafar guneak jasotako dirulaguntzei buruzkoa.

15a:

– CCOOren idazkia eta horrekin batera Tributuaren Erreforma Aztertze Batzorde Berezirako eskatutako txostena.

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari anderearen galdera, Etxabakoitz Iparreko osasun egoerari eta Barañaingo Osasun Zentroa gainezka egoteari buruzkoa.

– Probintziako Hauteskunde Batzarraren idazkia eta horrekin batera Romeo Lizarraga eta Kiroga Astiz jaunen aldeko ziurtagiria

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari anderearen idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, hasierako titulazio planari buruz.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan UAGN eta EHNE sindikatuei emaniko dirulaguntzekin zerikusia duten datuei buruz.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Giza Eskubideen Batzordean ager dadila “euskarako Euskal Herrira” itxialdi-baraualdian parte hartu zuen kolektiboa, 200 pertsona ospetsuz osaturikoa.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Nafarroako Gobernuak edo/eta bere elkarte edo entitate publikoek Nafarroatik kanpo dituzten ondasun higiezinari buruz.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen galdera, Aburreagainean hazitarako patata bildu, tratatu eta komertzializatzeko biltegi bat eraikitzeari buruzkoa.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren galdera, La Dehesa urtegitik Buñuel eta Ribaforadaraino ura kanalizatzeko lanei buruzkoa.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren galdera, Ingurugiro Zerbitzuak eginiko ikuskapen aktei buruzkoa.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: 814/94 eta 131/97 Foru Aginduen kopiak, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuarenak.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Inguru Zerbitzuak 1997. urtean zehar Zirauki dermian eginiko ikuskapen aktei buruz.

– Lourdes Echeverría Lecumberriren idazkia. Hauxe jakinarazten du: 1998ko urtarrilaren 22an, Biltzar honetan zerbitzuak emateari utziko diola administrari kategoriako funtzionario gisa.

– Valtierra Udaleko idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako erabakia, bat egin duena Saharan erreferendum librekoa egiteko onetsitako adierazpen instituzionalarekin.

16a:

– Lourdes Echeverría Lecumberri andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: etxebizitzaren aurrerakina ordaintzeko gelditzen den kapitala aldi batean itzultzea, 1998ko abenduan.

– Lourdes Echeverría Lecumberri andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: borondatezko exzedentzia Nafarroako Parlamentuko administrarien kidegoan.

– Alberto Amorrortu Amaricaren idazkia, aukera ezberdinak azaltzen dituen prestakuntza juridikorako ikastarora erregulartasunez joan ahal izateko.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakina Foru Lege Proiektu osoarekiko, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenarekiko.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen galdera Gobernu Zentralak Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeko asmoari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin batera Toki Araubideko Foru Batzordeko idazkariak bidalitako ziurtagiria, Errepideko Hiri Barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin batera Toki Araubideko Foru Batzordeko idazkariak bidalitako ziurtagiria, Iruñerriko Lineako Bidaiari Garraioari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, Nafarroan kontratatutako langileei buruz eta baita, horietarik, Nafarroako Gobernuari dagokion kopuru eta portzentaiari buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, Nafarroan eta

Foru Administrazioan enplegu sorkuntza eta suntsiketari buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, egunero egin diren aparteko orduak departamendu eta maila ezberdinetan denboraldi zenbaitzuetan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, 96 et 97. urteetan Gobernuak eskatutako edota sustatutako inkesta edo iritzi ikerketei buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, 96 eta 97. urteetan Nafarroako Gobernu eta entitate ezberdinen artean aurreikusitako edo hartutako hitzarmenei buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, 1997. urtean enpresei emaniko dirulaguntzei buruz.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, 1997. urtean enpresei emaniko dirulaguntzei buruz, eta banakatuta, departamentuak, hartzaileak eta dirulaguntzaren xedeak.

– Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: 1997. urteari dagozkion dirulaguntzak jaso dituzten nekazari eta abeltzainen zerrenda.

19a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta harekin batera Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunaren galderari erantzuna, hain zuzen ganbara errekurtsioaren likidazioari buruzko galderari.

– Nafarroko Gobernuaren idazkia eta honekin batera José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galderari erantzuna, hain zuzen Ehizari buruzko Estrategi Planaren Aurrerapenari eginiko alegazio, iradokizun edo proposamenen zerrendari buruzko galderari buruzkoa.

– Burlatako Udaleko idazkia eta harekin batera osoko bilkuran hartutako Erabakia, hain zuzen Nazioko Gobernuari, bai Estatuko Fiskal Orokorrak, bai Auzitegi Nazionaleko Fiskalburuak kargua utz dezatela eskatzen duena.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Urederra ibaiaren ibilguan eginiko laginketa elektrikoari buruzkoa.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Urederra ibaiaren habitata berreskuratzeko aurreikusitako jardueren garapenei buruzkoa.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Ega ibaiaren habitata berreskuratzeko aurreikusitako jardueren garapenei buruzkoa.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia, eta horren bidez Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jauna izendatzen dute ordezkari Giza Eskubideen Batzordean.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, Nafarroan jarri behar den presondegi ereduari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, Administrazioa edota bere erakunde autonomidunen mota guztietako mantenimendu, garbiketara, eta lan osagarrien zerbitzuei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, farmazi faktura txikiagotzeko Estatu mailan hartutako akordioak Nafarroan izango duen eraginari buruzkoa.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, dirulaguntzen banatze sistemaren berri eman dezan.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: nekazaritza organizazio profesionalentzako dirulaguntzei buruzko espediente administratiboaren kopia.

20a:

– Kontu Ganbararen idazkia eta horrekin batera Nafarroaren 1996ko Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio txostena.

– Auzitegi Konstituzionalaren idazkia, eta horren bidez zera jakinarazten du: metatu egin dituela ondoko konstituzio-aurkakotasuneko errekurtsioak: 3148/97, 3010/97, eta 2933/97, Junta de Comunidad de Castilla-La Manchako Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak jarritakoak, apirilaren 14ko 7/97 Legearen aurka.

– Berako Udalaren idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako erabakia, bat egiten duena Saharan erreferendum libre eta gardena egiteko onetsitako adierazpen instituzionalarekin.

– Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunaren galdera, kontrapasari buruzko espediente administratiboaren egoerari buruzkoa.

– Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Nekazaritza Kontseilaria agera dadila, nekazaritza organizazioei banatutako dirulaguntzen berri eman dezan.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari anderearen galdera, “Nekazaritza sindikatuentzako dirulaguntza” Aurrekontu-sailari buruzkoa.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari anderearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Nekazaritza Batzordearen lan bilera EHNErekin, sindikatuentzako dirulaguntzei buruz hitzegtiko.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari anderearen galdera, karlismoarekin zerikusia duen materialaren berreskurapenari buruzkoa.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: N-121ean, Tafallako irteerari dagoen gasolindegia parean “belarri” bat egin dezala.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Industria Kontseilariaren agerraldia, Nafarroan gas instalazioak aztertu eta horiei alta emateagatik kobratzen denaren berri eman dezan.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari anderearen galdera, medikuntza espezialitateetako atzerapenari buruzkoa.

– Nafarroako Unibertsitate publikoaren idazkia eta horrekin batera 1998. urterako aurrekontua, Gizarte Kontseiluak onetsia.

– Hauteskunde Batzar Zentralaren idazkia eta horrekin batera Pedro María Romeo eta Shanti Kiroga Astizen Foru Parlamentari kredentzialak.

– Shanti Kiroga Astizen idazkia. Hauxe jakinarazten du: Ezker Abertzalea Parlamentari Taldean sartuko dela.

– Pedro Romeo Lizarragaren idazkia. Hauxe jakinarazten du: Ezker Abertzalea Parlamentari Taldean sartuko dela.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe jakinarazten du: zein kidek osatuko dituzten Parlamentuko batzordeak.

21a:

– Lehendakaritza Ministeritzaren idazkia, eta horrekin batera hauxe jakinarazten du: jaso duela Parlamentuak osoko bilkuran emaniko ebazpena, hain zuzen Estatuko Gobernuari kooperazioari buruzko lege proiektua egitea eskatzen diona.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Toki Ogasunen Fondon Zenbatekoa eta horien Banaketari buruzko Foru Legearen aplikazioaren emaitzei buruz.

22a:

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: gauzatu dezala lankidetzaren hitzarmena bat Euskal Autonomi Erkidegoarekin.

– Salamancako Udaleko idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako erabakia, bat egiten duena Saharan erreferenduma egiteko onetsitako adierazpen instituzionalarekin.

– Eusko Legebiltzarraren idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako Erabakia, hain zuzen bat egiten duena Saharan erreferenduma egiteko onetsitako adierazpen instituzionalarekin.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Industria Kontseilariaren agerraldia, Volkswagen-Navarran sortutako gora-beheraren aurrean duen jarreraren berri eman dezan.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Industri Batzordeak lan bilera egin dezala Volkswagen-Navarrako langileen ordezkariarekin, hain zuzen lan-hitzarmen kolektiborako negoziazio mahaiarekin; horiek, langileria jasaten ari den egoeraren berri eman dezaten.

23a:

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Ultzama ibai arroko habitata berreskuratzeko aurreikusitako jardueren garapenari buruzkoa.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren galdera, Arga ibai arroko habitata

berreskuratzeko aurreikusitako jardueren garapenari buruzkoa.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Servicio Navarro de Empleo-Lanbidea abiaraz dezala.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, berri zehatzak eman ditzan presondegiaren kokaguneari buruz.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Nafarroako nekazariek IPARLATi eman behar dizkioten kopuruei aurre egiten laguntzeko kredituaren osagarria emateko foru lege proiektu bat igor dezala.

– Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunaren galdera, Ziordiako lurrazpiko pasabidea eta Olaztioko loturari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, “Potasas de Subiza” meategia izandakoaren lurretan gertatutako lubiziei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: gizarteratzeari buruzko foru lege proiektu bat igor dezala.

– Arantzako Udalaren idazkia. Hauxe eskatzen du: erantzuna, iazko azaroaren 28an bidalitako komunikazioari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Hauxe jakinarazten du: kolaboratzeko prest dagoela hezkuntza sistema aztertzei buruzko batzorde bereziarekin.

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari anderearen galdera, Ablitas-Tudela errepidea zabaltzeko lanen atzerapenari buruzkoa.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari anderearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Departamenduak ordezkari gizarteratze-egiteko kontzientzi objektoreak erabiltzeko asmoaren berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Herrilan Kontseilariaren agerraldia, 1997an zehar izan diren kontratazioen berri eman dezan.

24a:

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen emendakina Foru Lege Proiektu osoarekiko, hain

zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenarekiko.

26a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta honekin batera Herrilan Zuzendari Nagusiaren Ebazpena, indarrean dagoen Aurrekontuaren sailen artean kredituen transferentzia baimentzen duena.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari anderearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Nafarroako Administrazio Publiko-en Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari emendakinak aurkezteko epearen luzapena.

– Nafarroako Ikastolen Federakundearen idazkia, Hezkuntza Erreformari buruzko Batzorde Bereziaren esanetara dagoela esaten duena.

– Hezkuntza Departamentuko Inbertsio Zerbitzuaren idazkia, Hezkuntza Erreformari buruzko Batzorde Bereziarekin kolaboratzeko prest dagoela agertzen duena.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari ebazpen proposamenak aurkezteko epearen luzapena.

– Nafarroako Euskal Herrian Euskaraz idazkia. Hauxe eskatzen du: Nafarroako Parlamentuak komunikazioak euskaraz bidal diezazkiola.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin batera Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakinak, Nafarroako Administrazio Publiko-en Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari.

– Senideak-en idazkia, zenbait euskal preso-ren egoera jakinarazten duena.

27a:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako Lege proposamena, Estatu Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoaren 23. artikuloa aldatzen duena.

– “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia, batzordeak osatzen dituzten bere Taldeko kideen arteko aldaketak jakinarazten dituena.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: lan bilera bat Iruñerriko Mankomunitateko

ordezkaritza batekin, Iruñerriko Lineako Bidaiari Garraioari buruzko Foru Lege proiektuarekiko bere jarreraren berri eman dezan.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra de Navarra” Parlamentari Taldearen emendakina, Parlamentari Talde honek aurkeztutako mozioari, hain zuzen Gobernuak Biltzarrari gure Komunitatearen egoera politikoari buruzko komunikazio bat igor diezaiola eskatzen duenari.

– San Adriánego Landare-kontserba Zentro Tekniko Nazionalaren idazkia. Horrekin, bere instalazioak ikustera gonbidatzen ditu Biltzarreko Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Laguntza Farmazetikoari buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezala.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin, Bertizen lansaio bat izatera gonbidatzen du Lurraldearen Antolamendu Batzordea, parke naturalak Biosfera Erreserben Nazioarteko Sarean sartu behar baitu.

– “Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldearen mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Justizia Ministerioarekin negoziatzea hitzarmen berri bat ordezkotako gizarte-prestaziora atxikituta dauden jardueri buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia eta horrekin batera Tributuen Erreforma Aztertze Batzorde Bereziak eskatutako informazioa Nafarroako benetako presio osoari buruz.

28a:

– Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari anderearen galdera, arratsaldean zerbitzuak ematen dituzten osasun zentroi buruzkoa.

– STEE-EILASen idazkia, Hezkuntza Erreformari buruzko Batzorde Bereziaren esanetara dagoela esaten duena.

– María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari anderearen galdera, gaitasunak urrituak dituzten kolektibo-en lan-integrazioari buruzkoa.

– Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Berriozarko udal-dermioan, 1995tik aurrera VINSAk sustatutako etxebizitzaren esleipen-hartzailei buruz.

– Senideak-en idazkia, eta honekin batera, zenbait informazio euskal preso-en egoerari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Nekazaritza Kontseilariaren agerral-

dia, ondokoaren berri emateko: FEOGA-Bermek emaniko laguntzak ordaintzen dituen erakundearen ezaugarri eta funtzioak.

– Federación Católica de Padres-en idazkia, Hezkuntza Erreformari buruzko Batzorde Bereziaren aurrean agertzeko gonbidapena eskatzen duena.

– SEPNAren idazkia, jakinarazten duena Hezkuntza Erreformari buruzko Batzorde Bereziaren aurrean agertzeko prest daudela.

– Ezker Abetzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Lehendakariaren agerraldia, ondokoaren berri emateko: ekainetik aurrera Servicio Navarro de Empleo-Lanbidearen abiaraztea.

29a:

– "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: adierazpen instituzional bat onestea, giza eskubideen adierazpen unibertsalarekin bat egiteko.

– Iruñeko Udaleko idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako Erabakia, Mendebaldeko Saharako erreferendum libre eta garbiaren aldekoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, ondokoari buruz: deialdi eta lekualdatze lehiaketak alde batera utzita, osasun zerbitzuan izandako lekualdatzeak eta lanpostu aldaketak.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, alokatutako etxebizitzetara eta errentamenduak ordaintzen dutenari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, babestutako espezieen eboluzioari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, kutsatutako lekuei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, abiadura handiko trenari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren ebazpen proposamenak, Hondakin Berezien Plan Kudeatzaileari.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakinak, Bolondres Lanari buruzko Foru Lege proiektuari.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren mozioa, 1998. urtea "Giza Eskubideen Urtea" deklaratzeko duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren galdera, Vianako Printzea Kontsulta Zentroaren harrera zerbitzuaren funtzionamenduari buruzkoa.

30a:

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeek Liburutegi Nagusia "Santo Domingoko baratzak" izeneko lekuan kokatzeko eginiko txostenei buruz.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: informazioa, Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeek Iruñean biltzar jauregia eraikitzeko eginiko bideragarritasun-txostenei buruz.

– Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldearen mozioa. Hauxe eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: igor dezala Biltzarrera azterlan bat, jakiteko zenbat kostatuko litzaiokeen Foru Ogasunari derrigorrezko irakaskuntza mailatan testuliburuak ikasleentzat dohainik izatea, bai itunpeko ikastetxeetan, bai ikastetxe publikoetan.

– Lónguidako Udaleko idazkia eta horrekin batera osoko bilkuran hartutako Erabakia, Mendebaldeko Saharako erreferendum libre eta garbiaren aldekoa.

– "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen emendakina Foru Lege Proiektu osoarekiko, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenarekiko.

– "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen emendakinak Foru Lege proiektuari, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea aldatzen duenari.

– "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen du: mozioa, hain zuzen Nafarroako Gobernuari Justizia Ministerioarekin hitzarmen berria negoziatu dezala eskatzen diona, Gizarte Gaietako Batzordearen aurrean izapidatu dadila.

– Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Zerbitzu eta Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren idazkia. Horren bidez, prest dagoela agertzen du Hezkuntza Sistema Aztertze-ko Batzorde Bereziarekin kolaboratzeko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--